

ZARR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

283n. zenbakia
apirila 2003



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



FRUNIZ

**SALBATZAILLEAREN ELEIZAN SATUTEGIA
(BER-JAIOTZAKOA).**

- Erdian: Kristo antzaldatua (salvadore).
- Ezker-eskoian: Moises eta Elias.
- Beean: San Pedro ta San Juan lotan.

EUROPA ETA EUSKALERRIA

Aspaldion entzuten dogu jakingarri au: Europako geneak euskaldunenak dirala eta Europa'n agiri diran toki-izenak be euskerearen sustraia daukela.

Au euskaldunak esana ba'litz, txobinkeria dirudike, au da, geure burua goratzen dogula edo beste era batera esateko nartziskerian jausten garala, baiña ez, ez dira euskaldunak ori diñoenak, gaur berton irakurri dot DEIA'n olako barri bat (2003-01-12) eta ez noa besterik egiten idaz-lan ori euskeratu baiño. Aurretiaz auxe bai esango dot: zergaitik ez dabe ekarten adibide lez Europa'n ain zabal dabillen "landa" itza edo Italia'n entzuten dan "gona" edo "fraka" itz onein zeltak zabalduak dirala esaten da, baiña aitaturako burubide ori baiezteko be bide izan leitekez.

"Azterketa batek diñosku euskerea Europa'ko toki-izen askoren sustraian dagoala. Europa'ko itz askok euskerearen senide diran itzak daroet barruan. Beste azterketa batek diño Europa'ko biztanleen lau irueren (3/4) euskaldunen ondorengoak dirala. Pentsabide au "Scientific Amerikan"aldizkarian agertua da,

"Azterketa orrek adibide asko dakaz euskerearen izenetatik sotuak dirala Europa'ko izen asko adierazko Esaterako "eber" ura edo errekea adierazteko erabilten da eta Europa'ko larogei uritan agertzen da eta ori euskerazko "Ibar"etik datorrela diño eta berba orrek euskeraz ibarra edo erreka-ondoko zelaia esan gura dau. Aztertu dira, baita, euskaldunena dan "is"berba-zatixua daukenak. Onak be ura edo errekea esan nai dau eta Alemania'n eta Suiza'nsarritan agertzen da. Antzera jazoten da "ur" euskal itzagaz. Eta billatzailleak sarritan agertzen dala "arn" diño, eta beti ibarretan, euskeraz "aran" agertzen dan adierazpenagaz. Ori agertzen da Ingalterra-barrenean Arundel izenean edo Noruega-'ko Arendal edo Alemania'ko Arnach eta Arnsberg izenetan eta olakoak amaika ba-dagoz. Jakingarria da Munich izena edo Múnken. Au ez da lekaideak bizi diran tokia. Lenago Munika izan ei zan eta orrek erreka ondoko goia esan gura dau eta euskerazko "mun"etik dator. Onak errekonoda esan gura dau, goiko lurra. Euskerea zabal ebillen Europa osoan orain 18000 urte dirala. DEIA.

"Germanizale eta Amerika-zale zan Ernest Furstemann'ek XIX gizaldian au esan ebanean: "Europa'ko erreken izenak landu bako diamanteak dira" ondo ekian zer iñoan-Eun urte geroago izkuntzalari talde batek egin-dako azterketan burubide au azaltzen dau: Europa'ko izen asko eta askoren atzean euskerearen senide diran itzak dagozela, eta ori onexegaitik dala: Euskaldunak, azkenen-

go izozketaren ostean, orain dirala 18000 urte Europa osoan biztanle ziralako.

"Billaketa ori gazteleraz agertu dan "Scientific Amerikan" aldizkariaren azkenengo zenbakian agertzen da eta Munich'en Ludwig-Maximilian Ikastetxe Nagusian germanizale eta izkuntzleri dan irakasleak idatzia da; Peter Foster bere izena eta Elisabet Hamel izparlari jakituna dau lagun.

"Billaketa orretan aztertzen dana gaurko europatarren eta euren izkuntzen jatorria da, izkuntzalari ikuspegitik eta Europa'n diran biztanletzak eta uriak dabezan izenak kontuan artuta egiten da. Azterketa orrek diñoanez, izen orrek ez datoz indoeuropearrendandik, antxiñako, edesti-aurreko, erriak erabilten ebezan izkuntzetatik baiño eta arkeologoak diñoenez, antxiñako erri orrek Europa'n bizi ziran azkenengo izotz-aldiaren ostean. Azterketa orrek olako erri bat aitatzen dau, gaur bizi dana, eta izotz-aldikoa dana, euskaldunen erria.

"Izkuntzalaritzako burubide onen ondorenak, genetikatik ateraten diranen antzekoak dira: Oneik be aldizkari orretan agertzen dira eta diñoenez, europarretatik 3/4 edesti-aurreko euskaldunen geneetatik sortuak dira eta orrek agertzen dau izotzaldiaren ostean Europa biztanle bete zanean, ara joan ziranak iberoen erdi-ugarteko iparraldetik eta Frantzia'ren ego-sartaldetik joanak ziralako.

"Billatzaille bezeizi orrein ustez, euskaldunak Europa'n bizi ziran artean izenak ezarri eutsezan lurreko aldaketa guztiai toki-izenak ezarriz eurak erabilten eben izkuntzaz. Orrelan Europa'ra gero etorri ziran biztanleak izen orrek euren izkuntzara egokitu ebezan zer esan nai eben jakin barik.

"Edesti-aurreko europear euskaldunak itzi ebena ez ziran toki-izenak beste barik. Lurralde bat baiño geiagoten zenbaketa egiteko era arrigarriak aurkitzen dira, oiñarria ogei dala. Eta ori ez zan indoeuropearrak euren amarako zenbaketa. Keltak euskaldunakandik artu eben ogeikako zenbaketa, eta ori dauke Dinamarka'tarrak be, baita aintxiña'ko frantziarrak be 360n. urtera arte. Billatzailleak diñoskuna au da: "Izan leiteken gauzea da euskaldunen izkuntza sortzen asi zala izotzaldiaren ondoren bizi-rik geratu ziranen artean. Gero alkarte oneik iparralderantz eta Europa'ren erdi-alderantz zabaldu ziran. Etorri barri orrek euren izkuntzan emon eutsezan toki-izenak ibai edo erreka, mendiai, ibarrai eta zingirai eta eurakaz ekarri eben Madalendarra deritxon jakintza.

(Vasco Press Bilbao. Euskeratu Olazar'tar Martin'ek)

8.-BIZANZIO'REN JAKINTZA (MILLA URTE)

Ikusi doguz Erroma'ko aginterriaren aunditasuna ta iraupen aundia baiña sartaldean jausi egin zan, basatien eragiñaz, sortaldean, ostera beste milla urte iraun eban.

Bai, zori txarrez, Erroma'ko aginterria zati bi egin zan eta ortik etorri jakon Eleizeari be arazo aundi bat. Egia esan sartaldean aginterri barri bat sotuko da, baiña ori dalata, sortaldeko Eleizea Erroma'kotik banandu egingo da. Dana zatiketa!

Edertiari begira, sartaldean jausi egin zan eta Eleizeak iru gizalditan egin bear izan eban lan basatien artera jakintza sartzen; sortaldean, ostera, erria obeto geratuta egoalako edo, ez zan olakorik jaso. Gaiñera, sortaldean Eleizea ta Aginterria bat egin ziran. An aurretikoak beti izan teokratak, erregea abade dala, orrelan Ejipto'n, Persia'n, Babilonia'n ... Antzera Bizantzio'n be.

Esdestia

Milla urte luze, bete-bete eta aundien aurrean gagoz.

330n. urtean sortu zan Konstantinopla, lenago Bizantzio zana, eta 518n. urtetik 556n. urtera bizi izan zan Justiniano aundia: Agintari bakarra eleizan eta errian, lurraldeak beraganatzen zalea: Afrika'n, Sizilia'n, Italia'n, Kortzega'n, Zerdefña'n, Balear ugarteetan eta Ispania'n bertan egin eban ori.

Iparraldean egozan merobinjioak itzaltasenez begiratzuten eutsoen.

Legeak batu eta osotu egin ebazan. Orretan maisua zan bera.

Edertian lanik ederrenak egin ebazan.

Bera zala uste eban munduan Jainkoaren ordezko.

Baiña ezin menperatu izan ebazan Erroma eta Aita Santua. Teodora bere emazteak ez eban nai ori, gaiñera: Sortaldekoaz asetu zan.

Monofisitien erlejiñoa jakon atsegin: Izate bakara, Jainkoarena, Inperioan be. Baiña il zanean bere amesak jausi egin ziran.

Erakliotarrak dinastia: 610n. urtean sortu zan indartsu. Bear be bai, laster datoz islandarrak eta. Oneik aginterriaren erdia kendu eutsen: Siria, Ejipto, Armenia, Afrika.

Isauritarren dinastia (717-867): Or daukagu III Leon irudi-apurtzaillea. Onek lekaideai indarra kendu gura dautse eta oneik irudi-zaleak ziran, baiña Erroma aserretu jakon Karlomagno'gaz batera, au da enperadore barri sartaldean.

Mazedonitarren dinastia (867-1057): Berreun urtean iraun eban errege-etxe onek eta onena izan zan: I Basilio, Nizeforo, Juan II, Basilio. 1054n. urtean agertu zan Migel Zerulario artoa: Erregeak ipinteko eta kentzeko eskubidea eukala uste eban. Onek zatitu eban Eleizea, erromatik bananduz.

1071n. urtean eraso eben gogor turkoak eta ez eben Konstantinopla bera eskuratu itxas-ontzi onak eukazalako.

Konmenotarren dinastia (1081-XII): Txurkiatarrak gaiñe-gaiñean dauzkez eta Aita Santua beti lagundu naian, baiña ezin. XII gizaldia izan zan azkenengo ona. Gero Latindarren inperioa (1204-1261) sortu eben Kurutzedunak.

Paleologoaren dinastia: Guda egin eben 1261n. urtean eta gizaldi bitan izan indartsu.

Azkenean, 1453-05-25'an, egun mingarria, turkoak artu eben Konstantinopla eta erregea, XII Konstantino, gudan il zan.

Jakintza

Baiña goazen jakintza aztertzeraz, auxe dalako gutzat arlorik gurena.

Klasikuen bideak jarraitu eban emen aurrera bizi-bizi eta milla urtean izan zan Europa'ko gauzarik onena, jakintza-arloan.

Erelejiño arloan Patriarkea'k dau indar aundia: 57 metropoli, 49 goigotzain, 514 gotzain eta danen buru, Aita Santuaren antzera, Konstantinopla'ko Patriarkea. Bere gaiñetik ez besterik Basileus baiño.

Monjeak indar aundia euken baiña laterriarentzat arriskugarri ziralakoa zabaldu zan, ondasun aundiak eukezelako, euren ez dan lurgintza txirotu egiten zalako, gudarostea urritu egiten zalako... Ori dala ta, asi ziran VIII gizaldian lekaideak aurrean erabiltea: Irudiak kendu, lekaidetxeak itxi, ondasunak kendu, ezkontzera beartu eta iseka aundiak egin... Lekaidetza galtzea zan elburua, baiña alperrik, eurak sendo jarraitu eben. XII gizaldian lekaideak oitura onak galdu ebazan eta bidelariai lapurretan asi ziran, liburuak saldu egiten ebazan...

Bitartean abadeak ondo konpontzen ziran agintaria-kaz. Migel Zerulario'k dana ankaz gora ipiñi ez ba'eban. Arroa zan, agintari nagusia kendu egin eban, Erromatik Eleizea banandu eban, IX Leon aita Santuaren aldi. Azkenean Agintaria aurka jarri jakon eta martin antzera il zan.

Filosofia-arloan Grazia'ko klasikuak artu ebazan eredu lez, baiña Liburu Santuaren jakituria gaiñeratuta eta eleiz-gurasoen jakituria erriaren barru-barruraino sartzen zala. Sortaldetik datozen bideak be ezagutu ebazan: Persia. Ejipto, Mesopotamia...

Edestia idazten ziran onak, Prokopio ta Menandro nagusi dirala.

Elertia landu eben gerkeraz batuan baiña ez gauza aundirik. Onein elertia zarratua ta txiroa da.

EDERTIA

Ederti-lanean dira obeak: Grezia (K.a.VI gizaldia), Erroma. Sortaldea (K.a. VIII gizalditik) artu ebezan eredu eta Kristiñau giroa gaiñeratu.

Dana dala, Bizantzio'ko edertia oso berezia da: Aundikerizalea, apaingarri askoduna, eleizak barrutik dira apainduak, ez ainbeste kanpotik, margo edo kolore askoak. Utsa ezin dabe jazan.

Lanik ederrenak VI gizaldian agertzen dira Justiniano'ren aldian. Esaterako Santa Sofia.



Santa Sofia Eleizea. Konstantinopla'n

Etxegintzan euren artean kupulea (torre-ordezko biribilla) da garrantzitsua. Batzutan aundia (Santa Sofia'n zillak 30 m dauz) eta Atenas'ko eleizan 3 m. baiño ez.

Euren kapitela be berezia da: azpian landarak baiña egokitu barik, ez korintiko tankera lez, eta gaiñean "zima-zio" esaten jakon txuntur-erdia buruz bera.

Rabena'n Ostrogodoak asitako San Bital eta San Apolar biak (Barria ta klasikoa) osotu ebezan.

Rusia'ra be zabaldu zan euren etxegintza X gizaldian.




Bizantzio-Tankekarako kapiela: azpian landarak, gainaen txuntur-erdia edo "zima-zio" buruz bera.

Reliebeak egiten onak dira eta marfilla be sarri erabiltzen dabe, ederra Maximiano'ren jesarleku.

Ikonoklastak kalte aundia egin eben; baiña gero berrito sortu ziran eder-lanak.

Mosaikoak egiten be onak dira, erromataren antzera, baiña txiro-aldietan merkeagoak diran freskoak egiten dabez (orman bertan legortu baiño lenago).



Maximiano'ren jesarleku: marfillezkoa.

Baiña geien ezagutzen diranak ikonoak dira, naiz margo lez naiz gai lez.

IX gizaldi inguruan batez be Bibliak apaintzeko miniatutura politak eta asko egiten dabez.

Euren erder-bidea zabaldu eben Eslaboen artera ta Armenia'ra



Teodora ta Bere ingurukoak: Mosaikoa

Olazar'tar Martin'ek

- GAURKO ARAZOAK -

Euskalerriko seme/alaben artean urduritasun aundia ikusten dot, Espainolak dabizen indar edo zapaldiaren alegiñak aundiak diralako, zeintzuk izango ete diran erak! euroi aurka egiteko.

Geiago, illak egoten diran bitartean, eurak, ilketa orrean bidez Mundu zabaleko jendarteari erakutsi egiten dautsoelako, Euskaldunak basatiak garala, alango astokeriak egin ezker, eta orretan arrazoirik ez daukagula.

Espainolak erakusten daben asmo-azterpen ori, guztiz guzurrezkoa da, ez-daukielako arrazoi tantarik be. Euskalerrria 1.839 urtearen eskeroztik oinpetuta daukielako, izkilluak gure buruetara kiñatuta daukiela. Eta len aipatu dogun tiro-ilketak lez, kiñu orrek! berak bakarrik esan nai dauana!, guztiz arrazoiaren ezean dagozela da.

Ikusten dan lez, izkilluaren indarrak, menperatzaillan argibideak bakarrik dirala eta orregaitik geiegian dagoz, Mundu onen arrazoiak ezartzeko.

Gaur ta aurrerantzean geiago, Mundu onen erri ta giza seme/alabak, arrazoiaren egarri garalako, bakea danon artean ezarri daiten.

Guztiok, gure gorputzetan tirabirakatuak izatea, edo, gagozan xautzailletasunezko bizi-usteletan gaizki-artuak izatearen bildur garalako?.

Gaur egun Mundu zabalean, edo Mendebaleko Mundu onetan, argi geratu dana, jendarte milloika kaleratu dala, guda ta onen inguruko estaibadak geikerian ta mende orreik garaituta dagozela esateko, eta gaur gagozan jakintasunezko talaia edo begira-tokitik ikusita barregarriak geratzen diralako.

Orrek esan gura dauana, gure barruko gogo-biotzetan egozten dan asmoa ez dala ori bakarrik; arimaren barruko egarria JAINKOA'ri begira dagoelako eta BERE Legearen agindutik (BEREZITASUNA) gure gaurko ekintzak jokoz-kanpo geratzen dirala. Argi-argi ikusten da, berezitasunak berak! salatzen daualako.

Orregaitik, gaur iñundik iñora-be ezin leike asmatu, arrazoi guda bidez konpondu leikenik.

Antziñako etorkizunetik oraintsurarte edo gaur-arte bai!, jaurlari diran gizon/emakumeak, erriak eta erritarak morroi lez, kontuan artu barik, eurak ziralako, xautzailletasunezko sasi-jainko bizi-naikeriak aurrera eroateko gudartean ibiltzen ziranak. Erritarren artean jakiturizko arloa oso txirotasunean egon zalako, eta erlijioaren aldetik sartzen zan bildurraren bitartez, eurak euki ebela-ko arrazoi guztiaren jabetasuna.

Gauza guzti oneik kontuan artuta, Euskaldunen artean askoz gogorragoa da, asieratik eta etorkizunean menpetu-bako Nortasun eta sinismen aundikoak garalako. Eta orregaitik, Euskal gogoaren zentzuan legezko arrazoi-arte joan-etorritako oso aztunak izan da, bein, zeatzasun eta sinismeneko-berbea emon ezker aldaketa oiek egitea.

Jaurkintza eta erlijiozko nagusiakaz sinismen osoan jokatu gendulako beti, ez gendun jakin eta gutxiago sine-tsi zelako jokotan ibiltzen ziran oneik, eta gutxiago erro-matar, godo ta erlijioak ekarte-bazan alako guztiztasun-menperatzail gogamenezko sare-arte jausita egongo zirenik. Ta zoritxarrez, osin ortan, ia lenengoetatik jausita egon ziran geienak.

Orregaitik eta guretzat zoritxarrez, eurentzat oso erreza izan da edestian zear guzurraren bitartez, ain sinismen aundikoak izateagaitik, gure artean banaketak lortzea. Baiña zori-onez, JAINKOA'ren Lege-Bereziak etenbako berrizkuntza-bizi baten iraun egiten daualako, jakintasuna erreztasun aundiz barriztu egiten da, eta len guzur astunak ba ziran eta ez ikusteko lekuan ostonduta joan ba-ziran be, gaur bitzaren antzera danon ikus-begitan joaten dira.

Edestian zear badaukie bai! Euskalerriko seme/alaba soil'ak merezimendua, gaur Euskadi bizirik agertzen dalako.

Arana eta Goiri'tar Sabinok azaldu edo on-adierazten eban Euskalerraren egoera ori: "Euskalerrria gaur arte gorde egin dauana, ara ez dan eldu oraindik arazo-aldia, beren duintasuna, bere lotsagizuna eta zintzotasuna izan dira. Alan ba, bera begituten badogu, erri ber-bera, esan leike nai-ta naiez iltzeko bidean dagoela. Baiña JAINKOA'ren eskuari begiratzen ba'dautsagu, BERA da eutsi dautsona; Nor-berak itauna egiten dau: "izango da JAINKOA'k gura ez dauana erri au desagertzea?."

Baiña solasean egindako itz-aurre au alboan itzita, goazen idaz-lan onen arira, edo ikertu gura doten mamira.

Esan leike, gure Euskal gizartea bildurtuta dagoela, eta batzukandik asmatuta, gaur Euskalerrria ABERRI lez ez dagoelako on artuta, atzerako pausoak emon gura dabez, edo beintzat alegiñetan dabizela bai, eta eginkizun ori ezin leike ontzat artu, beldurra azaltzea dalako batetik, eta bestetik erriarte zalantza sartzen daualako.

Bildurra eukitea ona da, zuertasuna edo zentzutasunezko neurriagaitik izaten bada, eta ori ez da bildurti izatea zentzu aundia eukitea baiño.

ERRIGINTZA

Dana dala, ekintza orrek egiten dauana da, aurka urten Ibarretxe lendakariak eskaiñi dauskun egitamu-saio eder oneri: “askatasunezko-alkargoan” (de libre asociación). Ala..., 1.839 urtearen eskeroztik eurak gure dabelako gu ez gara iñor ?.

Ibarretxe'ren egitama, ausarta, aurrerakoia eta asmoazterpen guztiz demokratikoa da, danon eskubideak lotsagizun aundiz batzen dauzalako.

Ori, igarotze aundi bat da gure etorkizunerako, eta kikiltasun orrek ez dauka iñungo zentzurik; batez-be Europa osoak dakialako, demokrazi on bategaz ezik, ez dagola konpontzerik. Bakotzari beren arduraren “-JABETASUNA” emon barik esan gura dau orrek. Eta nik ez neban ibiliko “JABE” aren itza, batez-be neurrian, arrotasun apur bat kentzeko, eta itza beren lekuan itziteko “ORDEZKARI” baiño, azken baten, JAINKOA'k eginkizun orretan bialduak garalako, eta ez geiagorako.

Orregaitik Europa'ko gende asko, milloika kaleratu da, eta geiena demokraziaren egarriak eraginda, kokote-raiño gagozelako edestitik zear, len egiaren izenean eta gaur demokraziaren izenean egiten diran astokeriak egiten diralako, beti gudartean; oiñaze, min eta nekean bizitzea indarkeriaren bidez datorren mozkiñaren aberatsasmoaren arduragaitik.

Mundu onen gaurko benetako gogoak orreik dira, eta jaurkintzako arduradunak kontuan artu bearko dabez erritaren eskaerai, eskubidedun laterriak izan gura ba-dabe. Ba-dira?. Ez! eta orregaitik betiko ezta-baida oneik. Leenengoko sasi-jainkotasunetan dabizelako, eta gaur nazkagarria dalako eginkizun ori.

Mundu'ko irugarren borroka nagusia ori da, eta irabazi egin bear dana gerra barik. Gerra sortuko balitz, atzerakada aundia izango dalako.

Euskalerrriak badaki zer diran egoera oneik, larriagoak be euki dabezelako, eta beti zentzu andiz aurrera egin dau beren NORTASUNA zainduz.

Euskalerrriaren seme/alabak zentzu aundiz gaur egin bear dauana lelokerietan ibili barik, leenen “EUSKADI dan ABERRIA'ren EGUNA” batera ospatu, alkar-urbillago egon gaitezcan, batera, bakotxaren ardurazko ordezkariaren lekutik lasaitasun ta zentzunezko zuertasun aundiz, Euskadi'ri zor dautsaguzan ardurak beteteko, aitez-kundetean zalantzarik gabe irabazita, indartu daigun gure NORTASUNEZKO izena, eta batez be, Europa eta Munduko gizartean biztuten dabizen benetako DEMOKRAZIAREN gogapenak indartu daitezcan.

EKINTZA ORRETAN
EUSKADI'ri IZARREN LEKUA EGOKITZEN
JAKO

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN 2.003`AN OTSAILLA'ren 20'an.

**NORBERAK EZ LEUSKIO EGIN BEAR
BESTE BATERI, NORBERARENTZAT
MINGARRI DANIK. ORI DA GURE
ERLEJJIÑOAREN MUIÑA.**

INDIA'KO “MAHABARATA” LIBURUAK



ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:
EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

MOISES'RI DEIA

Ejitoarra il ondoren, Moises bildurrez beterik geratu zan. Faraon aren billa asi zan, Moises'i eriotza, legez, ezarteko, baiña Moises'ek Madian'go lurraldeetara iges egin al izan eban.

Emen, jazoerak gero ta gogorrigo doaz Isrraeldarren-tzat. Areen negar ta samintasunak zeruko ateetan dei egiten dabe. Jaungoikoak nai dau, bere erriak zuzentasunean, jokatzea. Egillea bere aldetik gertu dago erri minduari laguntzeko. Ta erbestean dagon bere aukeratuari dei egingo dautso. "Nire erria geiago eziñean, deika dago Faraonen samintasanpean. Zoaz askatzera, Jopukeritik nire erria atera dagizun, nik bialtzen zaitut".

Moises'ek bere gogape edo kontzientzia deika dauka Jaungoikoaren esanera, baiña bildur da. Alperrikoa dala uste dau arazo orretara sartzea. Etsi etsian, errezo baten billa dabil eginbear ori bertan bera izteko. Itz egiten ez dakiala... berba artua daukala... ni ez naz gauza ortarako. Beste bat bialdu dagiala eskatzen dautso Jaungoikoari. Beste gizon bat trebeagoa ta almen egokiago bat bialtze-ko eskatzen dautso... Bene benetan, Moises bildur da, bere anaiak ez dautsena entzungo ta arean gitxiago, Faraondar etsaiak.

Orrez gaiñera, Isrraeldar jopuen zaindari bat il ebalata, ertzaiña alderdi guztietak billa jabilko ilketaren kontuak eskatzeko Faraonen aginduz. Irt, 2 I5 Arazo guzti au egin al izateko, nor naz ni? iñoan. Naita ortarako gogoa bizkortu arren ta norbere bizia il-zorian jarteko gertu egon, alper-alperik izango litzakela uste dau. Isrraeldarrak ez dauste sinistuko ta jaramonik be ez dauste egingo, Jaungokoa ez jake agertuta. Urt 4, I.

Ejitoarren alderdira ba-goaz, oneik su-goritan egozan, euren anaia il eban ezker. Ta Moises'ek ondo ekian aren gorrotoa ilkorra zala ta jende aren artean sartzea alperrekoa izango zala ikusten eban berebiatan... Gizon bat otso

artera, erdi erdira, joatea lez zan beretzat. Alan bere, zeuk nai dozuna bialdu egizu... ezkatu eutson Jaungoikoari... Irt, 4, 13.

Babilonia'ko Ondamendiaren zioak

Babilonian atzerriratuta egon zirenak, ango egonaren egonaz, konturatu ziran, an zergaitik aurkitzen ziren. Euren asmo galgarrien bidez, adu artara zergaitik eldu ziren.

Baruk igarleak galdera bardiña egiten eban: "Israel, zein da zu atzerrian zaukazan zioa? Jakituriaren iturria, bertan bera itzi barik, Jaungoikoaren bidetik ibili ba-ziña, ziu bake iraunkorrean biziko ziñan.

Jakituria non dagon, sindotasuna non dagon, adimena non dagon ikasi egizu; bizitza luzea non dagon jakin dagizun"... Baruk 3, 10-14.

Jaungoikoak bere erriaren ondamendiari buruz, Jermiasen aoz azalpen bat emon dau. Nire erriak oster, bere Aintza ezertarako ez danaren ordeztatu dau.

Arritu zaiteze zeruok orretzaz. Ikaratu ta izutu zaiteze... Jaungoikoaren goi berbera... Izan be, dongakeri bi egin ditu nire erriak... ni, ur biziaren iturria nagan au, bertan bera itzi ninduan eta urtegiak, urrik euki ezin daiken urtegi arrakalatuak billatu.

Eta nundik nora datorkien guzti ori, Jaungoikoa bertan bera izetik baiño... Ikusi ta ikasi egizu txarra ta garratza dala zure Jaungoiko Jauna, bertan bera itzi ta Ari lotsarik ez izatea. Jer, 2, II-19.

Emen argi agertzen dira Israelen ondamendiaren zio biak... Jaungoikoa baztertzea ta eurengan salbamen ustea jartea.

Solozabal'tar Paulin

Bakio eta Galipota

Prestige'k isuritako galipota dala eta, egunokaz, eta zoritxarrez, bein eta barriz agertuten izan da gure erria edabideetan. Egia da, galipot ugari be ugari batu da gure erriko aretzan (ondartzan), atxetakoa oraindikarren batu barik badago be.

Leengo aldiaren baina, Bakioko "Peñas Rojas" dalako inguruan be galipota batu ei zala aitatu euskuen bai EITB'k, bai Euskaldunon Egunkaria'k, eta baita beste batzuk be, agoz zein idatziz aitatu be.

Jakin beie be kazetariok inguru aretako izena, bakarra, betiko eta benetakoa, "AXKADA" dana. "AXKADA" eta kitu.

Jakin beie kazetariok ori, gero eurak gure erriko izenak bear dan lez erabili daiezan, eta ez daien lekuizen arrotzik edota gure erriagaz zerikusirik ez dauken kanpotar batzuk asmaukorik erabili.

Inguruko izenak jakin gura izan ezker, itaundu erriko jenteari, aborigenakana jo.

Badaezpadan be, Bakioko aretzearen izena AREAGA da. Izan be, Bakioko toponimia osoa euskaldun-euskalduna da. Bakotxari berea.

Iniaki Martiartu
Bakio

GU DA-ZARATAK

Gure aldizkaria illean bein baiño ez da agertzen eta orregaitik albisteak zar egiten dira. Orain, esaterako, guda-zarata ikaragarriak dira barria, baiña gaur, zezeillaren 6n. egunean idazten dodan au, irakurleen eskuetara jorrai-llan elduko da. Ordurako guda-trumoiak isilduta egongo dirala uste dogu.

Nortzuk gura dabe guda?

Gogoan daukagu oraindiño Torre Bikoitzak lurreratu ebezan egun larria, larria batez be, Ipar-Ameriketara bizi diranentzat eta geiago il ziran guztien etxe koentzat.

Ortik sortu da izu edo bildur-giroa bertan batez be, eta mundu osoan be bai... Bush'ek artu eban ardurea izu ori zabaltzen dabenak billatzeko eta orretarako egin eban Afganistan'eko guda. Ez eban lortu Bin Laden erruduna arrapatzea.

Gaur areriorik aundienen artean aurkitzen dana Irak'eko agintaria da. Gaurko mundu osoak daki ango agintaria Hussein diktadore bildurgarria dana eta jentetza osoak ilteko izkilluak daukazana

Orregaitik eskatu dautsoe Laterri Alkartuak edo ONU'k izkillu orreik kendu dauzala baiezta dagiala. Gaiñera aztertzaileak bialdu dabez laterri aretara olako izkillurik dagoan ikusteko. Ez dabez aurkitu baiña zalantzak ez dira kendu.

Bush dogu ainbat lasterren Irak'en aurka guda astea nai dauana eta gertakuntza aundiak egin dauz orretarako. Bere alde dago, batez be, Ingalterra eta España'ko Aznar be orreikaz alkartzen da.

Nortzuk ez dabe gura gudarik?

Jakiña, Irak'ekoak eurak dira lenengo gudarik naiz ez izatean, baiña sortzen ba' da gertu dago gogor erantzuteko

Gudaren aurka argien agertzen diranak Frantzia ta Alemania'ko agintariak dira eta oneik daukez euren alde munduko errialderik geienak eta Laterri Batuetan bertan naiz Ingalterra'n be eritar asko eta asko.

España'ko parlamentuan arazo au aztertu danean, Aznar bakarrik agertu da guda egitearen alde, beste guztiak aurka

Ikusten da ba, munduak bakea nai dauala, baiña konturaten da mundu ori zelako arriskua dan olako gizon bat Hussein'en antzeko gizon bat munduarentzat eta zelako kalte mkingarriak egin leikezan bere izkillu orreikaz, jentetza ilteko diran izkillu orreikaz?

Adibide lez, azkenengo guda nagusian a Alemania'n jazo zana artu dagigun: Hitler' eri larregi itzi jakonelako, zelako ondoren negargarriak sortu ziran!

Guk ez dogu gura gudarik!

Izan be gudaren kalteak ikaragarriak dira, guztientzat eta batez be erri errubakoarentzat.

Baiña bide ziurak eta sendoak artu bear dira Hussein agintari gogorak aurrera egin ez dagian. Zeintzuk? Zer egin bera kentzeko edo alboratzeko, erriari kalterik egin barik.? Orixe da arazo nagusia gure egun larri onetan. Izango da bideren bat!

AGUR

Barriro be erail dabe Euskadi'ren lagun ez dan gizarte-zale edo sozialista bat eta ezin itzi esan barik erailketa au txartzat artzen dogula eta beronen etxe koakaz maitasunez alkartzen garala.

Eta ori orrelan argi itzi-ondoren, gero entzundako berba batzui begira egin dagigun pentsalditxu bat.

Erailla izan dana ez da izan, antza dagoanez kristiñau fededuna eta etxe koak eleizkizunik ez egitea erabagi dabe eta orretarako eskubide osoa dauke. Egin bear dabena egin dabe eta geuk be eskubide bardaña daukagu euskaldunak eta fededunak izateko.

Erri-giroko illeta egin da ba illerrian, edo, argiago esateko, sendi-gorokoa. Orregaitik esan dabe, eta ondo esana da, ez dabela gura ezelako ordezkari eginkizun orretara joaterik. Baiña, ori esan-ondoren, beste au gaiñeratu dabe: Ez dabela nai Lizarra'ko ituna izenpe-

tu dauanik edo Eusko Jaurlaritzakorik joatea. Ez dakit gaiñeratze au zertarako dan, guztiai ezetza emon ezkerro, azkenengo onei be emona zan. Nai dabena eritar batzuk euren alkartasunetik alboratzea izan da.

Zer esango ete eben alderantziz izan ba'litz? Erailla abertzalea izan eta sozialistik ez dabela nai esan ba'lebe? Ori endakeria edo norakeria dala esango eben, zalantza barik. Eta errazoi osoagaz-. Legezko agintariak diranak alboratzea ez da bakerako bidea, ez da Euskalerraren etorkizuna eratzeko bidea.

Amaitzeko, barriro erailketa txartzat artu ondoren, sendiari geure alkartasuna eskini eta samintasunean leguntzen dautsagu eta argi itzi nai dogu guztientzat bakea nai dogula eta bear dogula, norkeri guztiak alboratuta, errien eskubide guztiak zaintzen dirala.

Olazar'tar Martin'ek

ABIZENAK

ELGARRESTA: Zumarragan asi eta Urretxu-inguruan. (Zumarraga-1383).

“Elka-” lur landua da eta “-sta”k ugaritasuna adierazten dau.

ELGEZABAL: Mungiako auzo baten izena da eta Muxikan be badago. (Bilbao-1735).

“Elge-” lur landua da eta zabal argi dago zer dan.

ELORDUI: Oñate’n agertu zan baiña zabaldu Bizkaian. (Arrasate-1461).

Elorria arantzadun sasiantzekoa da, eta “-dui” atzuzkiak taldea adierazten dau: “Aranzadi”ren antzekoa da.

ELORTZA: Legazpian, Oiñaten eta Seguran lenengo. Geroa Mungian be bai artzaiñak eroanda-edo. (Navas-1212).

Elorri arantzadun landarea da eta “-tza” ugaritasuna. Elorri asko dagon lekua.

ELORRIAGA: Apatamonasteriotik Bizkai osoara zabaldu da. Gipuzkoan be asko dago. (Arrasate 1578).

Elorriak dagozan lekua da.

ELORRIETA: Mungialdean eta Derion.

Elorri edo arantza-landara asko dagoan tokia da.

ELUSTONDO: Gipuzkoako Beizamatik Ameriketara igaro da.

Elorri edo arantza-landarearen ondoan esan gura da.

ELOSU: Araban dagon eritxu onetatik Azpeitiara eta Oiñatera igaro da. Emendik Ameriketara. (Bilbao 1700).

Elorri da oiñarria eta “-tsu” atzizkia. Arantzadun zugatz ori ugari dagon lekua da.

EMALDI: Eskoriatzan eta Orozkon dago eta Zeanurin be bai. “Ema-” abereentzat barrutia da, “-al-” “-ari-”tik dator, janari lez, eta “-di” ugaritasuna da. Abereen janari asko dagon lekua.

ENBEITA: Ajangizen eta Muxikan dago. Bean dagozan ema edo barruti-lekuak dira.

ENZISO: Errioxa ta Naparroakoa da baiña Andaluziara be igaro da.

Latiñeko “Incisum”etik etorria dala diñoie eta onek legortean abereak eroateko tokia esan gura ei dau.

EPALTZA: Orozkon eta Etxanon dago.

Iru esangura ezarten jakoz: 1) “Epal-” bedarlekua eta “-tza” ugaritasuna. 2) “Espel-” landarea, erderaz boj, eta “-tza” ugaritasuna. 3) Egibaltza edo aldapa baltza. (1674).

ERZILLA: Bermeon dauka bere etxea, baiña gero Gipuzkoara igaro zan. (Nabarra-1350).

“Erze-” bedarlekua da eta orren atzizkia “-illa” ez daki-gu zer dan.

EREÑOZAGA: Mungialdean dago eta andik igaro da Busturira ta Laudiora.

Ereñotza (laurel) dagon lekua da.

REPARAZ: Baztanen sortua da (1775).

Erregearen baratza esan nai dau.

ERRETOLAZA: Markiñan sortu da.

“-olatza” aterpea dan ezkerro eta asierako “Erret-” erregearen antzekoa, “errege-aterpea” dala diñoie. Beste batzuk “-ola-” oiñarri lez artuta, errementari edo ola asko dagon lekua diñoie.

ERROTAETXE: Arrasate-ingurutik Zeanurira. (Arrasate-1420).

Errotearen etxea esan gura dau.

ESKARTZAGA: Okendon, Laudion eta Gordexolan dago.

“Eskartza-” erderazko arce da eta “-ga” tokia adierazteko ta mugatzaillea indartzeko.

ESNAOLA: Legorretan asi eta Gipuzkoara zabaldua. (Oria-1708).

Esnea dagon lekua esan nai dau. “-ola” ugaritasuna da, baiña egokiago bear ba’da, sasia esan gura dauan “esna-”tik.

EZKURDIA: Bizkaian eta Gipuzkoan.

“Ezkur-” gaur aritzaren frutua da baiña lenago zugatza zan. Abizen onek zugatz asko dagon lekua adierazten dau.

Olazar’tar Martin.

AMAIUR ETA IÑIGO LOIOLA'KO (2N. SARIA)

Arraioz'eko Jauregui-zaarrean gaude, Etxekoandrea urduri dabil:

- Aizu, Patxi, atoz ate onen ingurura.
- Zer du, ba, zurezko ate sendo onek bereizirik?
- Burnizko morrollo galanta barrutik eta beste burnizko ate bat eantzita, kanpotik.

Iriki zuen atea eta alaxe gertatu zan: beste ate bat zeukan kanpotik zurezkoari eantzita: biak ate bat egiten zuten.

- Eta onek zer esan nai dau?
- Burnizko ate au Amaiur'eko atea da eta, zertzalada asko tartean dirala, etorri zan etxe onetara.
- Zeñiek emanda eta zergaitik?
- Kastilla'ko Errege Fernando Bigarrena'k eman zion Jauregui-zaarreko nagusiari, bere alde jokatu zuelako Amaiur'eko burruka-aldi aretan.

Arri-ta-zur gelditu nintzan ateari begira eta musu bat be emon neutson. Berreun giza-seme jator'ek emon eben beuren bizia Naparroa'ko Erregeen iesari bidea errezteko.

- Aiek bai, gizon abertzale jatorrak eta ez Loiola'ko Iñigo traidorearen antzeko. Zergaitik egon bear eban Iruña'ko gaztelua naparren aurka defenditzen, Kastilla'ren serbitzari?
- Orduko arazoak ez dago gaurkoekin neurtzerik. Zortzireun urte moroekin burrukan aiek bota eziñik: naparrak, giputzak, bizkaitarrak, Aragoi, Cataluña, Asturias eta Galezia, danok bat egiñik.
- Bai, ori be, alan da; baiña, burruka oiek amaitu ziran aspalditxoan eta zerk eraginda etorri zan Kastilla Naparroa menperatzera?
- Kastilla bakarrik ez zan etorri; erdaldunekin batera agertu zan Lerin'go kondea Beaumont'etarrekin alkartuta. Guztiak napar. Naparroa'ren erdia beste erdiaren aurka: egoaldeak ifar-aldea bere menpean artzen. Eta gertaera ori, gaurdaño eldu da. Ez al dezu ikusten Sanz, Naparren lendakaria, napar euskaldunen aurka jokutzen? Orduko arazoa ez da amaitu oraindik; amaituko be.
- Baiña, Iñigo'k zertan sartun bear eban burruka orretan napar Erregeen aurka?
- Iñigo'ren arazoa beste arazo bat da. Neuk argituko deutzut zergaitik zegoen Iñigo Iruñan eta ez Amaiur'en.

IÑIGO'REN ARAZOAK

Beltran jauna, Loyola eta Oñaz gazteluen jabea, Granada aldetik dabil azken urte onetan, burruka bizian,

moroak Afrika'ra bota naiean. 1492'garren urtean, orratio, lortu dute beuren asmoa; Bohabil moro erregea bota dute kanpora. Garaipena itzala izan da: betirakoa.

Gerra amaitu eta Beltrán Loiola'ra biurtzerako, beste urte bete; bitarte oietan jaiotako Iñigo'k, Beltran'en azken semeak, bete ditu bi urte. Amairu erditze izan da, ama oso aulduta dabil, bularra eman eziñik bere seme-txoari. Eskerrak Errazti, etxeko ermentariaren emazteak, aur galdu berria dula eta bera aukeratu zuten gazteluan Iñigo'rentzat ama-titi.

Ama gaixoak ez zuen asko iraun bizirik eta zazpi urte betetzean, orra Iñigo, amaren aldetik, umezurtz. Aita burrukalari, anaiak gerrateetan eta aurra bere koñataren ardurapean. Koñata, ordea, ona izan arren, eta koñata au oso ona zan, ez da sekulan ama izango. Amaren utsune onek zuloa utziko zion Iñigo'ri betirako biotzean.

Amabost urte bete berriak ditu Iñigo'k Arevalo'tik mezua eldu zanean Loiola'ra:

- Aizu, Beltrán, zuk seme-alaba asko dituzu eta bidaldu eizu seme bat gure etxera eta emen zaldunen antzera eziko dogu.
- Bai, gustora bidalduko doutsut; amabost urte bete berriak dauz, garai egokia zaldun-jokoak ikasteko, ez da ni eta bere anaiak bezin mardula; baña, txikiagoa izan arren, kasta gogorrekoa dozu.

Pozik artu eben mutikoa Arevalo'ko gazteluan. Eurok ziran Fernando eta Isabel, Kastilla'ko erregeen diru-kontuak eramaten ebezenak eta Valladolid'eko korte-ateak beti zabalik eukezan; ortik ubiltzen laister ikasi eban gure Iñigo gazteak eta bertan paje bere izendatu eben.

Isabel iltzean, Fernando, errege alarguna, beste emazte baten billa asi zen, eta jo eban Foix'eko gaztelu-ara eta andik ekarri eban emazteki berria. Erregin onek, Foix'etik ekarri eban bere kortea eta Arevalo'ko etxe-koandrea aukeratu eban beretzako lagunik miñena. Korte-ateak zabalago Iñigo'rentzat eta Pirenee-aldeko lagun berriak ere bai...

Baina zoriona ez da betirako izaten.

Fernando'k alaba zoro bat eukan, Juana “La Loca”, Alemania'ko printze batekin ezkondua; printzearen izena Felipe “El Hermoso”. Enperadorearen semea. Aur bat izan eben, Karlos, eta amari eskutik kendu eutson aitak, Flandes'en ezitzeko aitita enperadorearen ardurapean.

Espainia'ko enperadore izateko unea heldu zitzaionean, andik ekarri eban bere korte doistarra eta emengoentzat lekurik ez. Arevalo'ko gaztelua beste batentzat; baita diru-eramate arazoak be. Iñigo'ren osaba-izeko, kalean. Bera, berriz, zer esanik ez.

IÑIGO'REN KAKOA

Une larri aretan, illoba lanik eta etxe barik ikustean, 500 dukat eskura eta bi mando emon eutsozan izekok; baita komendiozko mezu bat bere Naparroa'ko Erregeordezko Najera'ko Kondearentzat:

– Or bidaltzen dautzut nere illoba; emen ezbearrak jo gaitu eta bearrik barik geratu da. Zure inguruan edukiko dozu lantxoren bat beretzako. Eskertuko dautzut biotzetik.

Bide onetatik aurkitu zan Iñigo Naparroan Kastillako Errege-ordezkoaren menpean, Albert eta Catalina Foix'ekoekin Iruña birreskuratu nai izan zuten aretan. Napar-erregiñ Catalina Foix'ekoa zan eta orregaitik etorri ziran Foix'ekoek (Frantziarrak) naparrekin batera Iruña askatzera. Gaztelua menperatu zutenean, an aurkitu zuten Iñigo anka-ezurra apurtuta zuela. Iñigo eta Foix'ekoek, Valladolid'eko Kortetik ezker, lagun zaarrrak ziran eta orretxegaitik zauritutako gudaria, ormetatik zintzilik urkatu bearrean, leunki artu eta Loyola'ko etxera eruan eben. Zaartzaroan berak esaten ebanez, ez zuten naparrek eraman, frantsezek, baizik.

Kakoa emen dago:

Iñigo'ren izekoak bere mezua Naparro'ra bota bearrean, aiiñ ezagunak zituen Foix'ekoetara bidaldu ba'lu, auekin batera etorriko zan Iñigo Iruña askatzera. Eta ori ala gertatu izan ba'litz, bere gizatasun eta zuzentasuna ikusita, ziur nago Amaiur'eko 200 gizaseme aietako bat izango zala bera.

Baña, Iñigo izan zanik be ez genduan sekulan jakingo.

OARRA.

Napar eta Foixtarrek, Iruña menperatuta, bertan gelditu ba'lira, ez zuten gaztelua berriro galduko; baña, Frantzia'ko Frantzisko Leena eta Espainia'ko Karlos alkarren artean burrukan ebiltzen. Une aretan Kastilla'ko Los Comuneros, Erregearen aurka jeiki ziran, Karlos'ek bere Korteat atzerritik ekarri ebalako eta kargu gorenak euren artean zabaldu, Frantsezek une ori aprobeztatu nai izan eben eta Iruña'n sartu bearrean, aurrera jo eben Kastilla'ko bidean.

Orrek emon eutson denbora Najera'ko Kondeari, bere gudariak bildu eta frantsezak gaintzeko. Orduan Napar-Erregeek alde egin bear izan zuten beuren Benabarra'ra. Eta igesi-aldi ori errezteko gelditu ziran 200 gizaseme jator, bidean zegoen Amaiur'eko gazteluan. An eutsi zioten etsaiari bizia eman arte. Il ziran berreunak, beuren Erregeen biziak salbatzeko. Bertan egoteko aukera izango zuen Iñigo'k, bere Arevalo'ko izebak beste era batera jokatu ba'lu.

ANES ARRINDA ALBISU

ZUGAITZAK BOTA EZKERO, URA TA TXORIAK BADOAZ, ZUGATZAK SARTU EZKERO URA TA TXORIAK EKARRI EGITEN DIRA.

R. CORONIU

Zorionsua izateko beste batzuk iraintzen dauzana, oneik be zoriontasunaren billa dabiltzanean, ori ez da sekula izango zorionekoa.

Buda'k

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ



**ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU**

SALMO EDER BATZUK

(7) Zazpigarren Salmoa Maria Eleizan eskeiñia Jaunari.

1

Maria aurra pozgarria zan,
ezagutzen zuan dana;
gutxi jan eta gutxi lo egin
au zan egiten zuana.
Aurrak bezela sarri negarrez
au zan egin etzuana,
bera zalako graziz betea,
Jainkoakin bizi zana.

2

Sortu zanetik aurrak zekian
ondo garbi itzegiten,

bere aingeruk agertutzean
kontuak zitun esaten.
Umiltasunez besten atzera
ixilkan zan egoten,
urte ta erdi zituanean
agertu zan itzegiten.

3

Bi urte bete zituanean
erruki aundiarekin
beartsuari laguntzen zien
amaren baimenarekin.
Amak esaten zion: "Orrela
izan beartsuarekin".
Laguntzen zien emanakin da
bere jatekoarekin.

4

Aingeruk ere arritzen ziran
aurra ala ikustean,
baita ama Ana santa ere
aingeruakin batean.
Jaunak bedeinkatzen zuan Ana
maitetasunez betean.
"Ama, ni eraman Eleizara
iru urte izatean."

5

Maria aurra eldu zanean
iru urte izatera,
eraman zuen Eleiz aundira
gurasuakin batera,
neurrigabeko pena saminiñaz
alaba an lagatzera;
baiñan konforme agindu zuen
promez ura betetzera.

6

Maria sartu zan Eleizara
amak eskutik artuta,
ta bere aitak ama-alabai
maitasunez lagunduta.
Irurak otoitz egin zuen an
Eleiz aundian sartuta,
Maria eskeiñi zan Jaunari
alaitasunez poztuta.

7

Ango apaizak atera ziran
Maria aurrera artzeko
eta Mariak gurasuari
eskatu bedeinkatzeko.
Bedeinkatu zien gurasuak
alaba an gelditzeko.
Simeon apaizak Ana Xarrari
eraman zion zaitzeko.

8

Ana xar ura profetisa zan
Eleizan bizitzen zana,
otoitz egiñaz gau eta egun
Jaunari emana dana.
Maria aurra onen mendera
izandu zan eramana,
eta an zeuden neskari eman
zien besarkada bana.

Salmoa Jaunari eskeiñia Jaunari

Jaun-goi - ko Ai - ta mai - te zai -
tu - gu za - ru lu - rren E - gi - le - a Jain - ko
se - me - a mai - te zai - tu - gu gut - ti -
on Sa - bi - bai - tari - lle - a Jaun Es - pi - ri - tu San - tu - a
ze - ra a - lai - ta - sun - e mai - lle - a gu - re
a - ni - man se - na - rra ze - ra po - za
sor - teen lan - gi - lle - a

**(8) Zortzigarren salmoa: Maria-
ren Bizitza Eleizan**

1

Eleizan zeuden birjiñak zeuken
bakoitzak bere lekua,
Ana profetisa zan maestra
apaizak aukeratuta.
Onek esan zion Mariari:
“Au da zure koartua”;
eta bakarrik an bizitzen zan
abestuz Jaungoikua.

2

Bere aingeru zaindariari
eskatu zien orduan
lagun zeuela ona izaten
bere bizitzan Tenpluan.
“Nere gurasok baldin badaude
pena samíñez munduan,
nere partetik zuek alaitu
beren biotzan barruan.”

3

Mariak otoitz egiten zuan
eskatuaz Jainkoari:
“Biraldu, Aita, zure Semea
salbatzera gizonari.
Beti birjiña izango naiz ni”
agindu zion Jaunari.
“Ontzat artzen det zure eskeintza”
esan zion Mariari.

4

Marian amak eman zizikion
Mariaren maistrari
erropak eta erregaliak,
emateko Mariari.
Mariak umill eskatu zion:
“Eman danak pobreaki”.
Maistrak egin zuan ziona
ta zaitzen zion berari.

5

Egun batean Jaunaren itza
aditua zan munduan:
Jaunaren Ama izango zanak
zer egin zuan Tenpluan.
“Bere lan eta egite danak
birtute goienekuan,
gure itz eta aingeruenak
ezin esan dan moduan.

6

Maria aurra kotsagratuta
Tenpluan bizi zanean,
azitzen juan zan jakinduriz ta

graziz betetasunean.
Jauna geiago ezagutuaz
dan Jaungoikotasunea,
baita gizonak ere geiago
bizi bide zuzenean.

7

Mariak egin zuan eskeintza
Eleizan bizi zanean:
“Jauna, zugatik nik bizi nai det
emen guztien mendean.
Nere gauzarik ezer e gabed,
mailla beartsuenean,
ta Eleizatik atera gabe
nere bizitza danean.”

8

Jaunak erantzun: “Nere maitea,
ez dakizu oraindikan
nola bizitu bearko dezun
urte geiago juanikan.
Birjiña izan eta beartsu,
esan dana egiñikan”.
“Ondo da, baiña Eleizan beti
urrenguan gu gaitan.”

**(9) Beatzigarren Salmoa: “Ma-
riaren aita iltzen da”.**

1

Apaizak esan zion: “Maria,
nere alaba maitea,
Elizan otoitzak diranean
nai det zu ere juatea.
Aitak Mesias biraldu dezan
zuk ere erreztatzea;
zortziren jun lotara eta
argitzean jeikitzea.

2

Eleizan otoitz egingo dezu
beatzik arte goizean,
gero Anari entzun esana
ta jan neurritasunean.”
Belauniko Mariak: “Bai, jauna;
nago zure esanean.”
Bere eskuan mun eman zion
umiltasun aundiñean.

3

Maria aurrak eskatu zion
Ana bere maistrari,
etxea eta ontzik garbitzen
laga zeiola berari.
Eleizan zeuden danen mendeko
gelditu zan zerbitzari,

liburu santu eskribituak
letzen zituan ugari.

4

Eleizan bizi zala Maria
Jaunari eskeiñirikoan,
ta bertan sartu zala ziran sei
illebete bakarrikan,
santu Joakin Marian aita
gelditua zan gaixoarikan,
Jaunak agertu nola ilko zan
zortzi egun aurretikan.

5

Maria etzan estutu larri
baiñan zuan sentitua,
eskatu zion Jaunak aitari
uxatzeko diabrua.
Errukiakin lagundu, Jauna
azkena duan ordua.”
Erantzun zion: “Justuak dauden
Linguan dauka lekua.”

6

Aingeru asko biraltzen ditu
Mariak aitarengana,
ta esan zien: “Zure alabak
biraldu gaitu zugana.
Alaitu zaite bera degu ta
gure Erregiña dana,
baita Mesias Jainko-Semeak
Ama izango duana.”

7

Santu Joakin zaitzen zeguan
Ana bere emaztea,
poz aundia zan milla aingeru
beren etxera juatea.
Entzuteakin itzikan gabe
jarri zan gaixo maitea,
eta biotzez Jauna maitez
il zan birtutez bete.

8

Beste anima justuak zeuden
linbora zan aldatua,
Marian aita zala esanda
leku au zan alaitua.
Aingeru talde millako ura
izan zan bueltatua,
Mariari esan zien aitaren
eriotzan gertatua.

**ALDALUR ETA
IRUREGAGOIENA'tar JUSTIÑE
(LEKAIME KLARATARRA -
GASTEIZ)**

ANAITASUNARI BURUZKO LEGEAK

Urt. 19tik 24ra.

Aldi barri bat dator. Zapalketa denporea amaitu da, ta Jaungoikoak adiskide egiunea aurkeztuten dautso bere erriari. Israeldarrak, pozik, dagoz ta baietza emoten dautse Jaungoikoaren berbeari, ta Jaunak laguntza eskeintzen dautse, berari emondako baietza betetu al izan dagien-. Urt, 19, 3-6.

Jaungoikoak dirautso: “Ni zuen Jaungoikoa izango naz... Ta zuek nire erria izango zarete...”

Ta eurak ontzat artu eben esanez... Jaunak esandako gutzia egingo dogu... Urt. 19,8-

Baiña Jaungoikoak agintzea eta eginbearrak ez ditu ikusi nai edozelan aidean. Ori dala-ta, bere erria izateko, zer betetu bear daben agindubidez agertzen dautse. Era laburrean, amar aginduak, gaur esaten dogun legez, emon eutsezan Jaungoikoagaz artuemonak ta gizadiagazko eginbearrak betetuz, munduan egia ta bakea izan daitezana. Urt, 2, 1-17.

Jaungoikoa da gauza guztien ardatza. Urt. 20, 1-11. “Ejiptoko morrontzarik, joputza larri aretatik atera zinduezadan Jaungoikoa naz ni” Munduan iñork egin ezin leiken egitea eurekin egin ebalta Jaungoikoak, garbi, ikusi eben Israeldarrak.

Jaungoikoa, benetan, erriaren aurrean izenik aundienaz agertu da Israel erriaren askatzaille. Len eta orain, aldien joan-etorrian askatasun billa dabilzanen laguntzaille agertzen da Jaungoikoa. Jopuak azpian ta zapaltzailleak masuka goitik bera, orrek erri bat ezin osotu leike. Ez da gizonaren izateari dagokiona era ortako jokabidea.

Lenengo agindua anaitasunaren oiñarria da. Berak atera zituan zapalkuntza lotsagarrietik. Egiz eta zuzentasunez esan leike orduan: Nire aurrean Jainko-izunik ez dozue izango. Urt, 20, 3.

Israelgo erriaren jagolea Jaungoikoa berbera zanez, erri onen ardatza sinismena izan bear zan ta Jauna bere anaitasunaren oiñarria ta emendik sortu bear zan batasuna. Ez egoan beste biderik, erri onek bere burua zaindu al izateko.

Jaungoikoa alde batera iztea, gure bideak galtzea da. Ta onen orde z jainko izunak geure nagusitzat artu ezker, jopukeri ta txarkeri guztien asiera da, eguzkia kendu ezker, illuntasuna besterik ez dago. Ez ezerk, ez iñork Jaungoiko ordetza artzeko eskubiderik ez dauko. Iñok, egiz, ezin leike bera egin ez dauana, bere egilletzat artu. Jokabide ori guzurtia da ta guzur gaiñean erririk ezin leike eregi, ondamentian sartu nai ez ba-da beintzat.

Jaungoikoa gauza guztien ardatza da... Bakarra... Alan agertu eutsen Jaunak Ebertarrei, Faraon'en zapalketatik atera ondoren. ta sorturiko gauza guztien artean, norbera jaun egilletzat jarri nai dauanak biziaren sorrera, jarraipena ta izate gutzia okertu egiten ditu.

Jarraian datozen agindu biak lenengoaren ondoren utsa besterik ez dira. Gure naikeriz jainko-izun ustelak ez

ditugu sortu ta gurtu bear-URT, 24,4-6. Egizko aita ez dana, aita sortzailletzat artzea, egiaren saltzaillea izatea da, ta au ez da gizonaren jokabidea, gure adimenaren aurka doa ta bizitza legea zapuztuten dau.

Sorginkerizko zerbait ba-litz legez norbere gurarietara Jaungoikoaren izena ezin daiteke erabili. Ara emen, Jaungoikoak zer agindu eban: “Ez egizu, alperrik, agotan artu zure Jaungoiko Jaunaren izena, Jaunak ez dau zigortu barik itziko bere izena, alperrik darabillena” Urt, 20-7.

Jai-egunak jai egin bear ditugu, Jaungoikoa geure bizitzako oiñarria izan dedin. Aginpidez emon dasku agindua: bere gureganako jabetasunagatitik ta baita maitasunez bere, astegunez lanaren bidez ta jai egunez, atsedena-ren ta otoia-aren bidez, beragaz batera bizi izateko.

Ikusi dogunez lenengo iru aginduak gure Jaungoikoagazko artu-emonen zuzenbidea dira. Benetan, gauza egokia ta zuzena semeak bere Aita onartu, maitatu ta gurtzea.

Beste zazpi aginduak lagun bakoitzari begira jarrita dagoz, baiña beti, alkartasun bizitzara begira aurkituten dira.

Gizona zapalduta bizi izateko sortua ez da, bere zentzun eta almenak agertzen dabenez. Jainko erria askatasunez bizi izateko sortua da. Israeldarrak itxas gorria igaro ondoren, agindutako lurrera eldu baiño len, euren gaiztasunak ta tentaldiak izan zituen, bai egarriz ta bai gosez. Ordu larri orretan, atzera, Ejiptora begira be jarten ziran, lengo lanetara begira.

Emen agertzen da erriaren gaiztakerizko lera ta argaltasuna ta, or dago pertsona aren barruko burruka. Jauna begira egoan erria zuzenbidetik eroan nairik ta oar mesegarriak egingo dautsez. Norberekeri, zekenkeri, sexu-keri, gorroto ta ondamupeko era guztietako jopukeria debekatzen dau. Era orretan, bakarrik, anaitasunean bizi daiteke ta leialtasunez Jaungoikoa otseindu.

Jokabide au zuzena ta berezia da. gaiztakeriz beterik dagoan gizartearen beste ertza, gaiztakeriaren aurka zuzentasuna, giza barruak berez eskatzen dauana da.

Beste gauza eder bat gaiztakerik baztertu ta zuzentasunak nai dauana, sendia da. Bizia ondo eroan al izateko, sendiaren osotasuna bear bearrekoa da, apurtzeak ostera negarra ta burruka dakar, geure bizi legearen barrenean dago ba, sendiaren alkartasuna.

Bizitzaren beste oiñarri on batzuk oneik dira. Bestien bizitzeaganako dedu edo lotsa izango dozu, norbere ezkontza nai besteena deduz artuko dozu... besteen jaubetza txikiarenganako dedua izango dozu... Urko lagunaren entzutearenganako lotsa izango dozu... ez dozu ezertariko, ez iñungo lapurretarik egingo.

Urteera deritxon liburuan amar aginduen ondoren, gizadiak bizi izateko bear dauan lege bilduma bat dator. Izan be, gizontasunez, gizadiaren bizitza edertu egiten da

zuzentasunean. Ontzu, askaturiko Israel erriari, anaikiro, bizi izateko bide egokia agertzen dautso. Israel'eri emondako irakatsi onek, gizadi guztiarentzat dira argi ta zuzen-dari, Jaungoikoak erriarentzat emon bai ebazan agindu ta irakatsi, munduak dirauan artean.

Bizitzarenganako lotsea irakatsi eutsen. Urt, 21.12-32. Bata bestearenganako lotsea. Urt. 21, 23tik 22, 15. Jaungoikoak bere umeak ez zituan nai, bertan bera, lotsatuta itzita ikusi nai. Ezkontzako itza emonda ez dagoan neskea lilluraturik, aregaz etzuten dan gizonezkoak ezkontza saria ari ordaindu eta neska a emaztetzat artuko dau. Baiña neskearen aitak emaztetzat emon nai ez ba-dautso, lilluratzaileak neska-saritzat oi dana emongo dautso.

Baiña Jaungoikoak emon zituan irakatsi jakintsu ta ongille oneik, geien, beartsuei laguntzeko izan ziran. Urt.

22, 20tik 23. Baiña eten barik, beartsuen alde laguntza eskatzen dau. Munduan ez dago erruki bardiñik. Berak ondo ikusi bai-ditu gogoaren asturea ta gorputzaren gosemiña. Diruz lagun egin beartsuei irabazirik barik, eskatzen dau Egilleak... Jaungoikoak nai dauan lez bizi izateko, diru oiñarria zor bat da munduan.

Egille baten seme-alabak izanik, pertsona guztiak alkar onartu bear dabe, guzurrez gizadiaren bizia apurtu nai ez ba-da. Lege ontatik etsairik be ez da banatzen aitabaten semeen artean, Jaungoikoak ez dau gorrotorik onartzen... Zeure burua lez urko laguna maite egizu. Abadeena 19, 34.

SOLOZABAL'dar PAULIN.

JOB

Job santuarena esaten jakon liburua irakatsi ederra da gure bizitzarako Bibliak dituan beste liburuen antzera, baiña Bibliako beste liburuakaz jazoten jakuna jazoten jaku onegaz be: Ez doguz ikusten elerti-balioak. Job santuaren liburua munduko elertian diran liburuen artean ederrenatariko bat dogu. Ori agertu nai neuke idaz-lan onetan. Aita Alonso Schekel josulagunak irakatsi eustan ori Jaka' n.

Liburu au Kristo mundura etorri baiño eun-bat urte lenago idatzia da eta jakiturizko liburuen artera sartzen da

Elerti-tankera batera sartu nai ba' dogu, antzerki-lana dala esan bear, baiña ez antzokian agertzeko egiten dan lana, irakasterako egiten dana baiño. Onetan Tragicomedia de Calixto y Melibea eta La Celestina esaten jakon gaztelarazko idaz-lanaren antzekoa da.

Liburu onen elburua edo irakatsia zein dan jakin gura ba' dogu, garbi dago auxe dala: Zintzoak munduan jasan bear dauzan nekeak eta lorrak ez dira bere pekatuagaitik, Jaungoikoak bere zintzotasuna aztertu nai daualako baiño.

Liburua ondo ulertzeko, ikusi daigun tokia: Iru toki artu bear dira kontuan: Ortzi-gaiñean Jaungoikoa ta Txerrena, oneik dana dakie, lurraren gaiñean Job eta bere emaztea ta lagunak, oneik ez dabe arazoa ulertzen eta eztabaida aundian dabilz, eta irakurleak, oneik azkenerako ulertuko dabe dana.

Ikusi daigun lenengo kondaira, onek asko lagunduko dauku dana ulertzeko:

Laiñoak baiño gorago alkar-izketan diardue Jaungoikoak eta txerrenak

Jaungoikoak:-Ikusi dozu Job nire laguna, gizon zintzoa?

Txerrenak:-Bai ikusi dot, baiña zeu beragaz ona zaralako da zintzoa: Sendi ederra, abere asko eta osasuna emon dautsazuz eta bera esker onez daukazu. Kendu egiozuz ondasunak eta ikusiko dozu zelan madarikatzen zaituan!

Jainkoak: Kendu egiozuz ondasunak eta ikusi dagigun ori. Baiña bere osasunari ez ikutu!

Txerrena joan zan mundura eta Job'eri ondasunak kentuz eutsen eta bere seme alabak be il ziran eta Job'ek sendo iraun eban: Jaunak emon eustazan eta berak kendu daustaz, bedeinkatua izan bedi!

Barriro alkatu ziran Jainkoa eta Txerrena ortzi-gaiñean eta Jainkoak esan eutsen Txerrenari:

– Zelan dabil mundua?

– Dana ondo. Oraintxe nator andik.

Eta ikusi dozu Job nire laguna? Zintzo jarraitzen dau arek ondasun guztiak galdu arren!

Eta Txerrenak:-Ori osasun ona daukalako da. Kendu egiozuz osasuna eta laster ikusiko dozu zelan madarikatzen zaitun!

Joan zan barriro Txerrena mundura eta legendar-gaisoa ezarri eutsen. Job gizajoa kortan bizi zan atz aundia eukalako eta teilleagaz kentzen eban loa. Eta emen asten da antzerkiaren irakatsia: Emazteak eta lagunak pekatu egin dauala diñotsoe eta gaiso ori zigorra dala. Berak ezetz diñotse eta Jainkoaren zuzentasuna eskatzen da bera errubakoa dala esanez. Jainkoaren zuzentasuna be zalantzan jarten dau. Eta Jainkoak erantzun gogorra emoten dautso ekaitzaren gaiñetik

Eta azkenean Job'en zintzotasuna agertu danean, lengo ondasunak baiño ugariagoak emoten dautsoz.

Ederra da liburu onen irakatsia, ordurako naiz gaurko, baiña oraindik arazoa nabarmen geratzen da: Zergaitik daukez gizon eta andra zintzoak naiz pekatariak ainbesteko nekeak? Jaikoak ez dau inor zigortzen, baiña neke orreik gizakiak aztertzeke ezarten ete dauz Jaunak? Gaur ori be ez da onartzen eta azkenean munduan diran txarrak nondik eta zergaitik datozen galdetu ezkerro, ez dago erantzunik. Gauza bi dakiguz ziur Jainkoa ona dala eta olako nekeak jazo-bearra dagola. Izakia mugatua dalako jazoten dala ori? Ori be ez dago ain argi.

Dana dala, arazo onek sortu dauan elerti liburu ederra or dago.

OLAZAR'tar Martin'ek

GIZAKIA

Gizakia txikia

Sarritan geure buruari itauntzen dautsagu: Zergaitik egin gaitu Egilleak ain mugatuak,txikiak eta beartsuak?

Emon jakun bizitzea oso laburra da eta ume-denporan ez gara ezer, danerako gagoz iñoren pentsuan,zartzaroan,ostera,zama aundi bat gara ingurukoentzat eta gizar-tearentzat. Baiña zergaitik egin gaitu orrelakoak?

Zergaitik bearkizun orreik? Ez egoan era egokiagorik?

Egaz egiterik be ez daukagu eta egaztiak gu baiño askoz azkarrago dabiltz. Zergaitik ez eban gizakia egin egodun?

Lurrak janaritu bear gaitu eta sarritan gatx egiten jaku janariak eta edariak geuganatzeta,eta gaiñera, ondakiñak bota bear doguz.Ez egoan bide egokiagorik?

Otzak eta beroak ikutu aundia dauke guban eta guri bizia errez kendu legikue. Ez gara gai edozein tokitan bizi izateko orrexegaitik.Zergaitik ori?

Garbikuziak ainbeste zeregin emoten dauksuz,eta egu-nero,sarritan, ekin bear orretan.Zergaitik?

Eta jakintza edo kultura dana gizarartetik artu bear.Geurez ibiltzen, berba egiten,eta abar, ez geunke ikasiko. Gizarteak irakasten dauku: Etxean aitak eta amak, ikastolan irakasleak, bizitza guztian gagoz gizarartetik ikasten. Zergaitik ain mugatuak?

Eta txarrena,epe labur bat negar-erri onetan igaro ondoren eriotzea dator. Piztiak konturatu be ez dira egiten, baiña guk ba-dakigu azkena dala eta andiko aldean illuna baiño ez dogu ikusten. Zergaitik orrelan?

Erantzuna

Jaunaren aurrean tinko egiten doguz olako itaunak eta erantzuna bere agotik lez entzun geinke: Zu nor zara niri kontuak eskatzeko? Neu naz egillea eta gauzak nai dodan lez egiten dodaz.

Baiña ez dozu ikusten munduan aurrerapen aundia? Ez dozu ikusten nigaz batera egille egin zaitudala edo gauzak orrelan izanik zeure ingurukoakaz alkartzen zarala? Esaterako,ez dozu ikusten gaur txoriak baiño azkarrago egiten dozuezela egaz ain bide luzeak? Eta ori zeuek lortuta? Eta zartzaroari begira, ez dozu ikusten alkar laguntza edo osagilleen aurrerapena edo bizitzea luzatzea,zeuek lortuta?

Egillea bera bidera

Baiña fededunak garanok beste berba bat entzuten dogu Jaunagandik: Eriotzea izango da azkenengo desegingo dan lorra. Ain maite zaitudalako, or daukazue zeuekaz Salbatzaillea dan Kristo.Txarto artu zenduen eta eriotza negargarrira eroan eban baiña nik berbiztu egin neban bera izan daiten lenengoa eta berak ekarri daidan erreiñua, mundu barria, bizitza barria.

Azkenean neugaz bat izango zaree,betiko maitasunean eta pozean biziko gara. Dana doa aurrera eta dana nire ardurapean, eta egun baten dana amaituko da ondo. Eta zuen poza izango da mundugintzan nigaz batera ekin iza-tea.

OLAZAR'tar Martin'ek

Odolez zillatutako ituna

Jaungoikoak Moises'i dei egin ta onam berba egin eutson: Zu, Aaron, Ndab, Abiu eta Israelgo irurogei ta amar zaarrak Jaungoikoagana igon ta urrundik auzpeztu zakioze, Moises bakarrik, urreratuko da Jaunagana... besteak ez jakoz urreratuko... ta erria ez beite igo.

Moises'k igon eban mendi gallurrera ta Jaunagandik arturiko itz eta lege guztiak erriari jakiñerazo eutsoazan. Erriaren erantzuna jatorra izan zan, Jaungoikoaren leiala izango zala, berbea emon eutsen.

Alderdi biak ba, Jaungoikoak eta erriak, alkar arteko ituna egin eben.Ta aldi aretan oitura zan legez, alderdi biak ituna, aundikiro, izen-pentu eben.

Ituna egiten ebenen artean, odol pizkat botateko oiiturea egoan Israeldarren artean. Jaungoikoak eta

bere erriak be era onetan sillatu eben.

Urteera liburuan diñoanez ogeta-laugarren sail ta laugarren atalean, gazte batzuei emon eutsen zezen batzuk ilteko eginbearra ta mutil areik azkar betetu eben eureri emoniko agindua.

Ta gero, Moises'ek zezen odol erdia ixuri eban . Ta beste erdiagaz erria zipriztindu eban esanez "au da Jaungoikoak zuekin egindako alkartasunaren odola". Urt, 24. 8.

Itun au egin ondoren, Jaungoikoaren erria legebideratuta geratu zan. Odola biziaren asiera dan lez, itun egille biak, Jaungoikoak eta erriak, bizitzaren oiñarri bakana izango dabe maitasuna. Emen ikusten da jaungoiko ta gizonaren artean dagon maitasuna. Egilleak ezin dau itzi, bertan bera, berak soturiko erria

ta dei egiten dautso ta semeak be gogo onez aitari dirautse: "Zure esana egiteko gerturik gagoz".

Aldi luze bat geroago, alkartasun itun barria sillatu eban. Odol berbera Jauangoiko ta gizonen gain ixuria izango da. Era berean, gizonen seme ta Jaungoikoaren seme danaren odola izango da. Persona beratan Jaungoikoa ta gizona agertuko dira. Jazoera oneik ain dira aundiak, ain arrigarriak, egite onen barruan dagon maitasuna goratuteko Egillearren leguntza bear dogu.

Jaungoikoak argiro, esan eutson Israel bere erriari: "Neu izango naz zuren laguntzaille". Arrezkero giza-di guztiari, bardin dirausku, ta berak emondako bizitza, indar eta argitasunagaz aurrera goaz Jaungoikoaren uri santura.

Solozabal'tar Paulin

ERTZILLA'KO ALONSO

Erderaz idazten ospetsua izan dan idazle au Madrid'en jaio zan 1533n.urtean,baiña Madrid'en jazotako jaiotza au une aretako gauzea zan, bera eta bere sendia Bermeo'tarrak ziran.

Bere aita Fortun Ertzillako Gartzia zan eta ama Zuñiga'ko Leonor.

1548n.urtean, txiro eta umezurtz, II Felipe erregegaiaren etxeko langille biurtu zan eta onek irakasle bat ezarri eutson, Kristobal Kalbete eriotxona, eta onek irakatsi eutsozan idazle klasikuak,filosofia, Biblia eta Garzilaso. Bere idaz-lanean igarten da onein ikutua.

1554n.urtean Felipe erregegaiagaz Ingalterra'ra joan zan eta an jakin eban Baldibia il zala Txile'ko Arauko'n eta erregegaiagandik baimena lortu eban Ameriketara joateko. Kadiz'tik urten zan 1555n. urtean.

Txile'ko agintari nagusiagaz alkartu zan Arauko'tarren aurka apentza-guda egiteko 1557n.urtean Kallao'tik urtenda.

Zazpi gudalditan ekin eban eta berak eskuratu eban Txiloe eta Korkobado lurraldera sartu zan.Ementxe asten da bere bizitzea edesten dauan La Araukana epopeia.1558n.urtean Peru'ra erbesteratu eban.

Lima'n txiro aurkitu zan eta II Felipe erregeari laguntza eskatu bear izan eutson eta errege-ordeak bere zaintzailleen artera sartu eban

1561n.urtean guda-ekintza bat Lope de Agirre'ren aurka (au Oiñatiko semea zan, ankerra guztiz) eta Lope de

Agirre il zanean gure Ertzilla España'ra biurtu zan Ameriketaz zazpi urte egin ondoren.

Kortean ondo artu eban eta aldi onetan izan eban Juan bere semea, ezkontzatik kanpoko.

1569n. irarri eban La Araucana'ren iru zatietatik lenengo eta arrezkero ezaguna da España osoan eta Ameriketant. Ezkondu egin zan 1570n. urtean eta Santiago'ren Sailleko Zaldun izendatu eban.

1578n.urtean La Araukana'ren bigarren zatia argitaratu eban eta onek bere ospea ugaritu eban

1582n.urtean Azores ugarteetako gudara joan zan Bazan'go Albar'egaz eta emen ezagutu eban Cervantes idazlea. Onek bere idaz-lana asko goratu eban.

Laster biurtu zan Madrid'era eta liburuen aztertzaile izendatu eban,bide batez ibilladi luzeak egiten ebazala.

Bere bizitzako azkenengo bost urteak etxean igaro ebazan, erregearen laguntza barik eta idazten,Portugal eskuratzeari buruz dan bere liburua idazten.

1594n. urtean il zan eta bere gorpua Okaña'ko lekaima karmeldarren etxean dago.

Zer esan La Araukana liburuari buruz?

Ba,epopeia guztien artean onenatarikoa dala eta jazoerakaz batera irudimena ondo nastaten dauala. Bana-ko burrukak eta Arauko'ko gudari mitikuen ekintzak ondo goratzen dauazala liburirik geienean. España'tarrak eta inditarrak ondo ta adoretzu burrukatzen dabe klasiku-aldiko gazaundien antzera.

2.- EUSKAL JAKINTZA

Euskal jakintza,guztioak dakigunez,bereizia da eta asmamen aundia dauka agertzen dan lekuan ekintza bereiziak era arrigarrian sortzeko.Ori da idaz-lan onek agertuko dauskuna. Izaera orren iturria billatu nai ba'dogu, gure izkuntza, gure eresa,gure oiturak eta abar aztertu bearko geunkez eta ez gitxiago antxiña gure baserrietan izan zan bizie-rea.

Ori agertzen dau Bernart del Castillo'ren "Los vizcainos" idazkiak.

Gure jakintzak Ameriketaz ikutu ikaragarria izan eban.Ori be idatzita agertzen da ango misiolariak euskaldunen-tzat idatzi ebezan itzaldietan

Frontoiak,esaterako, Amerika guztietan agertzen dira, asi Kanada'n eta Suzko Lurrera arte,XVII gizaldian asita,lenengo eskuz eta au erarik txiroena ba' litz lez itzi zanean otzaraz eta paletaz be bai.

Abertzaletasuna be zabaldu zan ango euskaldunen artera eta 60 argitalpen, gitxienez,agertzen dira giro onetan Ameriketaz.

Eta euskerea be zaindu eta zabaldu dabe ango euskaldunak,etxean lenengo eta gero gizartean. Angoak ulertzea gura ez ebenean erabilten eban batez be. Poztasun aundiz alkar agurtzeko be bai.

Sarritan idatzi be idazten eban euskeraz.Gogoratu Fr. Juan de Zumarraga' k bere amari egindako eskutitza. Bada-ago XIX gizaldian ango literatura edo elertia eta 1936n.urteko gudaren ostean ara ainbeste igeslari joan ziranear indar aundia artu eban arlo onek eta liburu asko argitaratu ziran an,batez be Arjentina'ko Ekin irarkolan. Iru aldiz-kari ospetsu be bai: Caracas'en Argia, Guatemala'n Eusko Gogoia, eta Mexiko'n Ekin. eta geroago Arjentina'n asko.

BARRIALDIA (MODERNIDAD)

ETA 6: AMAITZEN

AZTERTU BARIK ITZI EBEN

Frantzetarren barrialdiak izan dauan okerrik aundiena auxe izan zan: Ez ebala aztertu bear dan bestean buru argiaren balioa. Doiztarren barrialdian Kant'ek artu eban buru argia (razón pura) aztertzeke lana, baiña au be ez zan gizarte-arazoetarako, Jainkoa billatzeko baiño.

Marx'ek, ostera, laster ikusi eban buru argia ez dala banakakoen gauzea, Gizartearena baiño eta ez dauala aztertzen lengoa bakarrik, bizartearen gaurkoa be bai. Onen ustez, Kant'en buru argia aztertzeak iñorenganatzeko edo "alienaziñoa" daroa giza-eskubideen arloan.

KANT'EN AZTERKETA

Ara zer idatzi eban Kant'ek eldu-aroa etorri jakonean: "Aldi baten uste neban egia billatzea zala gizakien aintza eta orduan ezer ez ekian gizona neuk be ezereztzat neukan. Rousseau'gan aurkitu neban bide zuzena. Onengan ikasi neban giza-izaerea aztertzen eta aurrerantzean uste neban esku-langillea baiño be gitxiago nintzala nire filosofia giza-eskubidea ezarteko laguntza izan ezik".

Eta Kant'en aurtortze onek indar aundiagoa artzen dau, Kant'ek izter-begiz ikusten ebala Rousseau kontuan artzen ba'dogu.

HEGEL

Kant'ek esan eban ori gauza aundia da, baiña ez da naikoa: Hegel'ek kendu eutson indarra Kant'en ardura orreri, filosofia gizonentzat onuragarri biurtzeko ardurari. Filosofi orren barruko eukia bide bat ziran aurrerapena onesteko, eta olan onesten dira edestian agertu diran ankerkeri guztiak.

Geroago argituko da obeto arazoa.

MARS

Mars'ek dan ori ulertu eban eta ondo ulertu be, baiña beste pekatu batera jausi zan, barrialdiaren (modernidad) beste pekatu batera: Materiaren eztabaidatze edo dialektika Jainko biurtu eban eta langillediaren barruan dagozan almenak Jainko lez goratu ebazan, ori dala etorkizun ohea aurkitzeko bidea, uste izanik.

Beronen lanak irabazi edo meritu aundiak euki arren, beronen azterpenak oso onuragarriak izan arren, ondo dakigu ondorenak nora eroan gaituen: Or daukagu kominismoak zer ekarri dauan Errusian eta beste leku askotan eta Berlin'eko ormea jausi zanean zer agertu zan Alemania'ko sortaldean. Orregaitik gaur komunismoak jarraitzaille asko galdu ditu eta asko aldatu bear izan da.

ELEIZEA

Eleizako arduradun edo agintariak, XVIII eta XIX gizaldietan bigarren "budiñezko gizaldia" izan dabe: Zorrotz eta sendo agertu ziran Barrialdiaren edo modernidadearen aurka, baiña benetako zioak agertu barik: Ez eban onartu buru argia Jainkoaren doe lez eta giza-eskubideen aurka jarri zan, oneik Jainkoaren eskubideen aurka dagozelakoan. Ez eban kontuan artu Biblian argi dagoala Jainkoaren eskubideak ez dirala besterik txiroen eskubideak baiño. Orraiño alboratu ebazan Kristo'ren jarraitzailleak benetako fedetik, politikako almena eskuan euki-teak.

Eta gaur be ez dago kenduta okerkeri ori, barrero dator Eleizan izan zan pentsakera edo Batikano'ko II Eleiz-Batzar Nagusia albioratzeko "inboluziño"-tentaldia.

Ez dogu aiztu bearko Batikano'ko II Batzarrean be barrialdia edo modernidadea ez zala bear zan bestean aztertu. Ori jazoten da beranduegi datozen erantzunetan. Barrialdia goratu egin zan eta ez zan agertu zertan egoan jokabide ori Jesus'ek agertu ebazan balioen aurka: Gizon guztiak bardiñak garala, zapalduak eta alboratuak gizarteratu bear dirala.

Or daukagu egoameriketan sortu zan "askatasunaren teologia", lenengo munduak ulertu dauan Batikano'ko II Batzar Nagusiaren orde, bide egoki bat azaltzeko. Baiña europatarrak (eta erromatarrak) bizi-bizi agertu ziran aurka eta teoloji orren utsak agertu ebezan.

IRUGARREN MILLEURTEAN ZER EGIN ELEIZAN?

Jesus'en Jainkoaren aurrean zintzoa izateko, Jesus'ek mundua maite izan ebala eta bizia onen alde emon ebala jakiñik, argi agiri dira or zeregiñak:

Barrialdia zuzen aztertu baiña jokabide orren barruan dagoanik onena aintzat artzen dala.

Egiteko ori zapuztu egin ebala Eleizeak beronek, beronen jatorrizko pekatuari jarraituz.

NIETZSCHE

Ez zan Eleizea barrialdiaren arerio bakarra. Barrialdiari gogorren eraso eutsana Nietzsche izan zan. Baiña barrialdiaren kidekoak azterketa ori iruntzi eta egozi egin dabe, aurea emon barik. Euren onerako ba'litaz lez artu dabez. Onetan Nietzsche Jesus'en antzeko agertu da: Bil-durtien erantzuna da.

AMARTYA SEN, INDITARRA.

Amartya Sen inditarrak Nobel saria lortu eban ekonomi-arloan eta arlo onetan agertzen doguzan utz eta oker guztien aurrean Sen'ek bide oker bi artu dauzala barrialdiko ekonomiak diño: Gizonak beti buru argiak diñotson lez jokatzen dauala uste izan eta buru argi orrek diñoana norberekeriari geien laguntzea dala sinistu (gogoratu azukerea ta morroiak). Sen'ek diñoan ori urrean dago Agustín deunak diñoanetik: Gizakiak goi-eskar barik 1º ez dakie zer nai daben, 2n. ori ikasten dabenean, beteteko makal dagoz eta 3n. argia ta indarra artzen dabezenean okerreko aukera egiten dabe sarritan.

Sen'en ustez barrialdiko ekonomiak giza-bideak labur artzen dauz. Urte luzeetan uste izan da ekonomia etikaren zatia dala, zelan bizi bear dogun esateko dala, baiña gaur ekonomi orrek beste galdera oneri erantzuten dautso: Zelan aberastu naiteke ni? Aristoteles'ek berak be ekonomia "Nikomano'ren etika" liburuan agertzen dau.

Ikuspegi orretatik, gauza bitan aztertzen dau Sen'ek Barrialdia: Zergaitik da buru argiaren bidea norberarena billatzea ta besteak alboratzea? eta guztiak norberekoak dirala izan leiteke egia naiz guzurra, baiña ori dala bear dana esatea okerkeri aundia da. Auxe da gaurko ekonomiaren okerrik aundiena.

Eta ori diñoskuna, sortaldeko bat dogu eta larrialdia- ren alderdi onak artzeko beti gertu dago, etikarako onuragarriak dirala diño.

Orrelan laguntza dogu emen agertutako eritziak sendotzeko.

AZKENA

Emen esan doguna labur-labur agertzen da oraintsu ikusi al izan dan irudi-mintz edo pelikula baten: "Sortaldea lurralde au baiño askoz gorago dago medikuntzan. Emen mediku ez danak be laguntza emon lei. Eta emen barria dana izkilluak, (armak) baiño ez dira."

Orra or, barrialdiaren aunditasuna eta lotsakizuna: Gizaldi bi igaro dira eta bigarren gauza onek, armak, lenengo alboratzen dauz. Barrialdiak beste bide batzuk artu bear dauz. Ori agertzen da Seattle'n naiz Porto Alegre'n naiz Bartzelona'n: Barrialdiaren irakatsiak ez dakargu besterik munduarentzat alkarkuntza edo batzango okerra ta itxuragabakoa baiño.

Barrialdiko eritziak ezin dabe onartu guztiok bardiñak garala edo neke larrietan bizi garala. XX gizaldia gizonen edestian ankerrena izan da.

Barrialdiaren ondoren lez, lur osoa irutan apurtzeko beste izkillu egiten ikasi dogu, baiña ez urtean ogei ta amar milloi ilten dauzan gosea kentzeko janariak batzen.

Aberatsen eta txiroen arteko aldea lenengo 2-1 zan, gero 30-1, eta gaur 60-1. Batzuren arrokeria eta dirubotatzea lotsagarria da ezer ez daukenen jendetza guztien aurrean. Gogoratu Arabia Saudi'ko erregeak Benidorm'en eroaten dauan bizikerea!

Eta olako bizikera lotsagarriak ankerkeria dakar ezukien aldetik. Gogoratu, zelan edo alan, ori dala Torre Bikoitxak lurreratze guztiz ankerraren iturria.

Giza-eskubideak, edo dira guztienak edo ez dira giza-eskubideak.

Barrialdi-ostekoak edo postmodernoak beste amets bat dakarre: Barrialdiaren onurak artu eta okerrak ez.

Ori asieran polita da, baiña eziña. Barrialde ostekoak ez dauke pentsabide sendorik, baiña bai diru-kutxa bete. Barrialdiaren seme-alaba eta arerio izanik baiña lengotan geratzen dira.

Auxe dogu gure munduaren bide-kurutzea: Barrialdiak bere meritua dauka, baiña bere lotsakizunetatik garbitu egin bear da.

Jainkoa bera ete da urtenbidea? Egia esan, barrialdi-koak oker aundia egin eben Jainkoa ukatzeagaz. Eurak sinisten eben, beintzat emen agertu doguzanak, baiña ete zan kristiñauen Jainkoa? Ara zer diñon Voltere'k: Jainkorik eza aldarrikatzen dabiltz or misiolari barriak eta dogma-zale gogorak. Ezin dabe entzun, bizi asarretu barik, guk euren pentsamentua ez eukitea". Eta beste leku baten au diño: Ni katoliku egin nintzan, baiña kristiñau ixatea iñoz itzi barik".

Oena Jainkoak nai dauana egitea da, batzuk ori Bera-gan sinistu barik egiten dabe, beste batzuk sinistu arren ez dabe beteten. Emen ondo dator Jesus'ek esana: "Jauna, Jauna! diñostan guztiak ez dira sartuko erreñura, nire Aitaren naia egiten dabenak baiño".

De Lubac'ek diñoanez, "larria da jainko bako gizatasuna", baiña larriagoa" Jainkoaren naia egiten ez dauan kristiñauaren egoera".

OLAZAR'tar Martin'ek.

BBK

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hileru,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk⁺